

«Ez Dok Amairu»k 25 urte (eta II)

Aurreko hastean planteiaturiko eritzi gaiari jarraituz, oraingo honetan ere, «Ez Dok Amairu», duela hogeita bost urte euskal kantagintza berria sustatzeko sortu zen abeslari kolektiboaren inguruko eritzi pare bat bildu dizuegu.

HILABETE hauetan esames ugari ematen ari da aspaldiko «Ez Dok Amairu» talde hura. Guzti hori beharrezkoa dela deritzot, bertatik jaurtitako haziek emaitza eta uzta mardulak eman dituztela euskal kulturaren esparruan pentsatzen dudanez.

Urte bana batzuz ditugunak honen lekuko izan baginen ere, gazte-egoak direnek ere badute «Ez Dok Amairu»-ren abiada eta funtzionamendua ezagutu ondoren bere printzipioak eta utzitako altxorra konpartitzeko eskubidea, nahi izanez gero behintzat.

Bi aldiz aipatu dudana kolektibo honen pertzean musika, poesia, eskultura, pintura eta beste zenbait asmo eta intentzio egosten ziren, bere osotasunean, Franquismoaren erasoetatik defendatzeko eta errebindikazio nazional eta kulturaleri aurre egiteko sortutako fronte kultural bat izan zela esango nuke nik. Kopuruz, abeslari/musikoak gehiago ziren beste espezialitateetakoak baino, hauek beren sasoiko, gogoko edo liderrak zituzten atzerriko zenbait musikoren kantak bertsiatzen entrenatu ondoren, konposaketa propioari ekin zioten neurri handi batean. Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo, Xabier Lele, Arze anaiak, Joxe Anjel Irigarai eta beste batzuz «baga, biga, higa» bezalako emankizun arrakastatsuek aurkeztu ondoren eliza, polizia eta garaiko zenbait zaldizko ofizialistek esplikazioak eman beharrean gertatu ohi ziren.

Momentuko egoera eta jarrera politikoa halakoa zelako edo, «Ez Dok Amairu»-k ondo aztertzen zuen kide berri bat hartu aurretik honetara bilerak politikoa zein lokaletan egiten zituen; izatez, baziren beste abeslari eta profesional batzuz Kolektiboko honen printzipioak erdizka edo bateren onartzen ez zituztenak, eta hauek beren gogoz edo gogoz kontra, ez ziren inoiz «Ez Dok Amairu»-ren partaideak izatera iritsi, garaito «espainolista» eta «abertzale»-en arteko liskarretan honen esplikazioa ia infantila ere bazen, gaur hain erraza gertatzen ez bada ere.

Aurten, hogeitabost urte betetzen dira «Ez Dok Amairu» sortu zela, urtemuga hor dago «zilarrezko etaiak» ospatu nahi dituenarentzat, nik so ondo dakit Taldekide izan zirenek oso era desberainera zelebratuko dituela beraien duten oroimena. «Ez Dok Amairu» bakarra ez zen izan, baina talde bezala aintzindari edo erreferentziatiko bat bat euskal kantagintza berriaren historia laburrean; bere bidea ez zen luzetia izan, desegiteko arrazoiak berriz nahi hainbat: eritzi politikoa desberdinak, helburu pertsonal desberdinak, arazo pertsonalak, langileria, borroka armatua...

Herritar xeheak, Kolektiboaren desegitearen ondoren, nekez onartu ziren musika, literatura, eskultura etab. artea direla, eta ez kontsigna politikoa gordinak idatzeko pankartak bakarrik. Gauregun, ghemen egiten diren musika motek, funtzio desberdinak dituzte, eta bakoitzak daki zer eskeini edo zer topatu ahi duen. Hori bai, hemen euskarazko testua duen musika eta erdarazko testua duen musika egiten dira.

J. M. Goikoetxea.
Elkar argitaletxeakoa.



J. A. Irigaray

«Ez Dok Amairu»-ko kide-ohia

MAIZ gertatzen den bezala aiseago da konprometigarria den auzi batean aintzinean Miel Otxin baten xerka ematea, egiazko arazo nagusiei eta haren zergatikoei lotzea baino; ondorioz, kontzientziak lasaituko dira, agian; ez, ordea, deus sakonik jakinen. «Ez Dok Amairu» taldearen kondairarekin —bukaerarekin bereziki— antzeko zerbait gertatzen delakoan nago. Batzuren aburuz delako hobenduna ni naizenez, behin eta berriz errepikatua, ez naiteke geldi gertatuari buruz, nahi eta behar baino laburkiago, ene eritzi azaltzen saiatu gabe; batere mikatzasunik gabe eta norberaren errespetoari zor zaituen begiramen osoz.

Taldearen abiapundu nagusiak izanen liratekeenak, kantagintzari zegokionez, goiz ziren finkatuz joan: herri kantategia ikasi eta jantzi gaurkotuago batez eman, ondare hartaz mamitu, eta garaiko arazoak ondoagoiti lotutako berriak sortu; biak elkarri atxikiak zirelarik.

Eta hori dena kalitatez eta profesionaltasunez egin nahiz. Ideien aldetik joera bertsua zen: euskal arnasa duintasunez jantzi eta aldarrikatu, erroak sendotu eta adarrak munduan zehar zabaltu.

Hori dena —oraiko eta betiko biziaren mintzoa, zinezko nazioartekotasunaren zentzua— taldearen ardatz eta helburu nagusia zen. Funteszko horretan taldekideak, desberdintasunik frango izan arren, bat gentozen.

Herriaren askatasun nahiarekin bat etorritz, laster zuen taldeak oihartzun zabal eta sakona bildu. Baina menpeko egoeran, oldarrak etengabeak eta era askotariakoak izaki, euskal arnasa galdu eta suntsitu ez bazen, zail, latz eta arriksutua zen borrokan murgildurik zihardu; bera bezala beste aunitz. Ondorioz, ez ziren gutti eta nolananahi-koak izan, alajainkoa, afera arruntetatik goi mailakoetara inoiz pairatu behar izanikako liskar eta gatazkak, bekaitzgo eta etsaigoak.

Honen aintzinean taldea tinko samar zegoen; ez, haatik, tentsiorik gabe, egoera idiliko eta erraz batean, batzutan, orai, hala irudikatzen bada ere. (Bidenabar, batere larrosa bidea ez zen ospe eta ohorezko tenorean ni ez naiz ia nehoiz ere aipatua izaten, ez omen uuen existitzen; taldea desegiteko garaian, aldiz, plazaratua naiz errudun baktarizat eta, beraz, ikaragarriko itzal eta indarrarekin gainerat, majiaz erdietsiak nonbait...)

Honek denak, halere, ez du esan nahi talde politikoa bat zenik. Kultur taldea zen, politizatua, naski, guztiak bezala, baina bere kultur bide eta mintzoarekin. Niretzat hori beti garbi egon da (eta arierioentzat ere bai). Zenbaitetan, gizarte oihartzun eta egoera arreta handiz hartu beharra zegoen, alderantziz bestetan; garrantziko une definigarriak zirelakoan ginauden eta, denak, Gizarte egoera eta norberaren sentsibilitate eta sormen lanaren arteko oreka zail horretan, denuden, izan zituzkeen desberdintasun xumeak. Niketz, sekula ez naiz itza arruntik politikazko bitartekotzat hartzearen aldekoa izan; ongi oihartzun dena politika dela, naski, baina bere hizkuntza eta munduarekin. Eta honetan ere bat gentozen denak.

Taldearen kontzientzi gunean batzuren eraginkortasuna, erantzukizuna eta itzala handiagoak ziren, agian, baina antze, kultur eta soziologian denak ginen interesatuak eta trebatuak, orobat uzartuak.

Kontzientzi gune hartan bat etortze eta uzartarna mendreagoak bihurtzearekin, ohizko mesfidantzak eta antzekoak hasi ziren eta taldearen iraupena bera zalantzan gertatu zen. Eta hori, euskal politikaren ahulezia, norabide eza eta ustelkeria nabarmenkiago azaltzen hasi zirenean gertatu zen (ohar, besteak beste, su eta haize haiek zituztela ekarri gaurko ekaitz eta miseriak). Taldea ere kutsatzen hasi zen, lehengo joera eta tinkotasuna gero eta inkomodoago eta zalagoak ziren, zalantza osinean amilduxe, ondarrean, taldea —lehen bezain tinko segitzeko gauza ez— desegin zen. (Ez da ahantzi behar, bestalde, taldekideen nortasun eta eboluzioa kontuan hartuz, agian, goizago edo berantago taldearen bereizketa etorri zatekeela)

Bereizketa, giro horretan baizik ez daiteke uler. Hartaz, landarat zeuden bigarren mailako arazoak esplikabide nagusizat ematea interesatua ezetik, erridikula da. Auzitan zegoen arazo mingarri nagusia taldearen beraren iraupen eta posibletasuna zen; gainerakoak, ohi denez, haren itzal eta arauera zihozten.

Bereizki ondoren, zorigaitzez, elkar ikusi ezinak eta mikatzasunak denengan, desegiten diren batasun guztietan (ezkontzatik haste), antzera; ez da zertaz harritzerik, gu —bereizki ni, naski— gaiztoago bait ginauden. Esan gabe doa, bestalde, holakoetan arrazoinak eta erantzukizunak partaide guztiei dagozkiefela.

Une eta garai haiek latzak izan ziren, baina baita ikaragarri eder eta beteak ere; arazoak arazo, taldeko guztiengan atz sakona utzi zutenak. Taldeak segitu ahal izan balu seguraski bide interesgarria urratu izanen zukeen, bereziki antzerki-musika arloan. Dena den, beretirik ere, ez dut usle makal diren taldeko askorengandik antze mailan sortu eta sortzen diren emaitzak.

Urteen poderioz min guztiak ezitzi ohi dira eta taldekideengan ere hala gertatu delakoan nago, nigan behintzat bai. Honek ez du esan nahi, alabainan, gertatuak desoroimenaren osin beltzean suntsitu direnik; baina, hartarantz gero argitzen saiatu ondoren, ahanztura terapia ona dela dadukat. Neretzat, beraz, omenaldiek eta antzekoek —zintzilik gelditu emaitzaren argitaratze posible bat barne— baldintza eta giro horretan dukete beren zentzu osoa; hots, kondaira propioki adierazteko eta burutzeko gaitasunaren lekuko izatean.

| | |
|-------------------|----------------|
| eritzi-miritzi | 2-3 |
| aberria | 4-5-6-7-8-9 |
| zuk zeuk zerorrek | 10-11 |
| atzerria | 12-13 |
| kirolak | 14-15 |
| erreportaia | 16-17 |
| kirolak | 18-19 |
| gaiak | 20 |
| arteak | 21-22-23-24-25 |
| mobida | 26 |
| arteak-telebista | 27 |
| eth | 28 |
| tve | 29 |
| irudiaren indarra | 30 |
| elkarriketa | 31 |
| eguraldia | 32 |

EGUNA

Editazaila: Iparragirre Argitaletxea
Zuzendaria: Luis A. Aranberri
Legezko Gordailua: BI-1514/86
Helbideak:

- Bilbon
Bilbo-Galdakao bidea, 8
Tef. 4120211
- Donostian
Karlos I. 3
Telef. (943) 462488. 462888.
462677. 462777
- Gasteizen
Posta kalea, 38-1
Tef. (945) 271600 (lau hari)
- Iruñean
Estafeta kalea, 57-2
Tef. (948) 227103/04/05/06

1990 · 10 · 12